AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

| INGURUMENA<br><br>IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI, TALDEEI ETA PERTSONEI DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRIAK, INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT PROGRAMA ETA JARDUERA EGITEKO | MEDIOAMBIENTE<br><br>BASES PARA LA CONCESION DE SUBVENCIONES A ENTIDADES, GRUPOS SIN ÁNIMO DE LUCRO Y PERSONAS PARA LA REALIZACIÓN DE DIVERSOS PROGRAMAS Y ACTIVIDADES RELACIONADOS CON EL MEDIO AMBIENTE |
|---|---|
| **1. ARTIKULUA. XEDEA**<br><br>Arau honen xedea da ingurumenaren alorrean helburu jakin batzuk dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat, taldeentzat eta pertsonentzat urteko jardueretarako diru-laguntzak arautzea.<br><br>**1.ARTIKULUA. ONURADUNAK**<br><br>Oinarri hauetan araututakoek eska dezakete diru-laguntza:<br><br>Jarduteko eremua Azkoitian duten eta legez eratuta dauden entitate, elkarte, klub, erakunde eta sozietateek.<br><br>Azkoitian ingurumena hobetzeko helburuz eskuarki eta noizean behin jarduera jakin bat egiteko elkartzen diren banakoek eta horiek osatzen dituzten taldeek.<br><br>Diru-laguntzen onuradun izateko | **ARTÍCULO 1. OBJETO**<br><br>Es objeto de la presente norma la regulación de concesión de las subvenciones para actividades desarrolladas a lo largo del año por entidades, grupos sin ánimo de lucro y personas con fines dentro del área de medio ambiente.<br><br>**ARTÍCULO 2. BENEFICIARIOS**<br><br>Podrán solicitar las subvenciones que las presentes bases regulan:<br><br>Las entidades, asociaciones, clubes, organizaciones y sociedades legalmente constituidas cuyo ámbito de actuación sea Azkoitia.<br><br>Las personas individualmente consideradas y los grupos de éstos que se reúnan habitual y ocasionalmente para la realización de una determinada actividad encaminada a lograr un fin de mejora medioambiental en el municipio de Azkoitia.<br><br>La justificación por parte de las entidades |

| | |
|---|---|
| debekurik ez dutela deklarazio erantzule baten bidez justifikatuko da. | de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario podrá realizarse por una declaración responsable. |
| Oinarri Orokorretan aurreikusitakoaz gain hauek dira diru-laguntzen entitate onuradunen betebeharrak: | Son obligaciones de las entidades beneficiarias de las ayudas las previstas en las Bases Generales y las siguientes: |
| a) Diru-laguntzaren xede den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarrera hartzea.<br>b) Diru-laguntza eman duen organoari justifikatzea baldintzak bete direla eta diruz lagundutako jarduerak egin eta xedeak lortu direla.<br>c) Diru-laguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapeneko edo finantza-kontroleko gainerako jardueren hartzaile izatea, eta jarduera horien harian eskatutako informazioa ematea.<br>d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten besten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana jakinaraztea diru-laguntza eman duen organoari. Jakinarazpena horien berri izan laster egin beharko da, eta, betiere, emandako diru-laguntza zertan aplikatu den justifikatu baino lehen.<br>e) Kasu bakoitzari aplikagarri zaion araudiak eskatutako kontularitza-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izatea, baita diru-laguntzak arautzen dituzten berariazko oinarriek eskatutako kontularitza-egoerak eta erregistro espezifikoak edukitzea ere, egiaztapen- eta kontrol-eskumenen erabilera bermatzeko.<br>f) Jasotako diru-laguntzak nola aplikatu diren egiaztatzen dituzten agiriak gordetzea, horiek egiazta eta kontrola | a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.<br>b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.<br>c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.<br>d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a la subvención percibida.<br>e) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos exigidos por la normativa aplicable en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras específicas de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de |

| | |
|---|---|
| daitezkeen neurrian.<br>g) Jasotako dirua itzultzea, aplikagarriak diren arauek xedatutako kasuetan.<br>h) Diru-laguntza emateko aintzat hartutako egoeren aldaketak jakinaraztea hura eman duen organoari. | comprobación y control.<br>f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de las subvenciones recibidas, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.<br>g) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en la normativa aplicable.<br>h) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención. |
| Diru-laguntza horiek beste diru-laguntza batzuekin bateragarri izan daitezke, baina jarduera horretarako beste diru-laguntzarik eskatu den adierazi beharko da. Diru-laguntzaren zenbatekoa ezingo da izan diruz laguntzen den jarduerak duen kostuarena baino handiagoa. | Estas subvenciones serán compatibles con otras que se puedan percibir, debiendo indicar si se ha solicitado subvención para la misma actividad. Nunca el importe de la subvención podrá superar el coste de la actividad subvencionada. |
| **3. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA HONAKO JARDUERAK EGITEKO EMAN AHAL IZANGO DA** | **ARTÍCULO 3. ACTIVIDADES SUSCEPTIBLES DE SUBVENCIÓN** |
| Ingurumen-esparruaren baitan eta Azkoitian : | Dentro del área del Medio Ambiente y en el término municipal de Azkoitia: |
| Hitzaldiak. | Conferencias. |
| Urteko dibulgazio kanpainak eta azterketak. | Campañas divulgativas anuales y estudios.<br>Organización de cursos de formación. |
| Prestakuntza-ikastaroen antolaketa. | Ocio y tiempo libre de ciertos sectores de la población. |
| Biztanleriaren zenbait sektoreren aisialdia eta denbora librea. | Actividades que fomenten la participación ciudadana. |
| Herritarren parte-hartzea sustatzen duten jarduerak. | Todo tipo de actividades e iniciativas que impulsen el desarrollo económico local contribuyendo así a la mejora de la calidad de vida de los ciudadanos. |
| Tokiko ekonomia-garapena sustatuko duten jarduera eta ekimen oro, horrek herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duela kontuan hartuta. | Material necesario para llevar a adelante |

| | |
|---|---|
| Auzolanean antolaturiko ekintzak gauzatzeko beharrezkoa den materiala. | actividades en "auzolan" |
| ***Ez da diru-laguntzarik emango jarduerak gauzatzeko talde edo erakundeak osatzen dituzten pertsonen lan orduak ordaintzeko.*** | ***No se subvencionarán las horas de trabajo dedicadas por las personas pertenecientes a las entidades que hayan solicitado las actividades subvencionadas*** |
| **4. ARTIKULUA. JARDUEREN HIZKUNTZA** | **ARTÍCULO 4. IDIOMA DE LAS ACTIVIDADES** |
| Jarduerak egiteko proposamenak eta diru laguntza zuritzeko memoria euskaraz edo Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira.<br><br>Azterketa eta ikerketen kasuan, behin betiko txostena eta WORDekin bateragarria izango den euskarri informatikoa bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, bai euskaraz, bai gazteleraz. Gainontzeko jarduerak euskaraz ala elebidun egin behar dira. | La solicitud y las memorias deberán presentarse en euskera o en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma. En el caso de estudios e investigaciones, el informe definitivo y su soporte informático (compatible con el formato WORD) tendrán que presentarse en los dos idiomas. El resto de las actividades tendrán que desarrollarse en euskera o en euskera y castellano. |
| **5. ARTIKULUA. ESKAERAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA.** | **ARTICÚLO 5. SOLICITUDES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN.** |
| Diru-laguntzak emateko, lehiakide anitzeko lehiaketa-sistema erabiliko da.<br>Hau da eskaerak aurkezteko epea:<br><br>- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratzean hasiera emango zaio. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 30 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko. | Estas subvenciones se concederán mediante régimen de concurrencia competitiva. Las solicitudes deberán presentarse:<br>Cuando se publique la convocatoria en el Boletin Oficial de Gipuzkoa y se le dará comienzo. Desde que se publique la convocatoria se inicia el plazo para presentar las solicitudes que será de 30 días. |
| ** Lehen deialdian eskatutako laguntzak eman ondoren, esleitutako aurrekontu-sailak aukerarik ematen badu, jarduera puntualak egiteko eskaerak aurkezteko* | **En el caso de que concedidas las ayudas solicitadas en la primera convocatoria la partida habilitada lo permita podrá* |

| | |
|---|---|
| *aukera izango da.* | *presentarse solicitud para llevar a cabo actividades puntuales.* |
| Diru-laguntzaren eskaerak oinarri orokorretan zehaztutako dokumentazioa beteta aurkeztu beharko dute. | Las solicitudes de las ayudas deberán ir acompañadas de la documentación especificada en las bases generales. |
| **6. ARTIKULUA. BALORAZIO-IRIZPIDEAK** | **ARTÍCULO 6. CRITERIOS DE VALORACIÓN** |
| Eskaerak dagokion Batzordean aurkeztuko dira eta horien inguruan egindako txosten teknikoa jakinaraziko zaio Batzordeari. Eskaerak aurkezteko azken egunetik hasita, hurrengo 30 egunetan Alkateak edo Zinegotzi Delegatuak ebazpena gauzatuko du. | Las solicitudes serán presentadas a la Comisión correspondiente y se dará cuenta a cerca del informe técnico emitido al respecto. En el plazo de un mes a contar a partir del último día de la presentación de solicitudes, el Alcalde o Concejal Delegado procederá a su resolución. |
| Diru-laguntzak esleitzeko orduan, hurrengo puntu hauek hartuko dira kontuan. Puntu horiek eskaerarekin batera aurkeztu beharreko memoria laburrean edo, bestela, txostenean egiaztatu beharko dira. | En la adjudicación de subvenciones se valorarán los siguientes puntos que deberán ser acreditados en la breve memoria o en su caso informe que se ha de entregar junto con la solicitud. |
| 7.1 Egin beharreko programaren edo jardueraren kalitatea, jarduera eta abar. 15 puntu. Irizpide honetan baloratuko da: lortu nahi diren helburuak eta proiektuaren garapen maila | 7.1- La calidad del programa o actividad a realizar, número de actividades, etc.15 puntos<br><br>Se valorarán los objetivos definidos y el nivel de elaboración del proyecto. |
| 7.2 Eskatzaileak garatutako urteko programaren ekarpena, ingurumena zaintzea sustatzeko nahiz herritarren parte hartzea sustatzeko. 15 puntu | 7.2- La contribución del programa anual desarrollado por el solicitante al fomento del cuidado del medio ambiente así como a la participación ciudadana.15 puntos |
| 7.3 Diru-laguntzaren xede den programaren edo jardueraren onura jasoko duen lagun kopurua. 10 puntu | 7.3- El Número de personas que se verán beneficiadas por el programa o actividades objeto de la subvención.10 puntos |
| 7.4 Eskatzaileak bere jardueraren garapen esparruan egindako ibilbidea, eta izandako | 7.4-La trayectoria, continuidad y estabilidad demostrada por la asociación o |

| | |
|---|---|
| jarraikortasuna eta egonkortasuna. 5 puntu | grupo en el ámbito en el que desarrolla su acción. 5 puntos |
| 7.5 Ingurumen-jardueren (Aste Berdea, Mugikortasunaren astea) urteko udal programari egindako ekarpena eta diru-laguntzaren xede diren jardueren jarraikortasuna. 5 puntu | 7.5-Contribución al programa municipal anual presentado para el desarrollo de actividades medioambientales (Aste Berdea, Semana de la movilidad) y continuidad de las actuaciones objeto de la subvención. 5 puntos |
| Eskaera ebatzi ondoren, eskatzaileei jakinaraziko zaie eta GAOn argitaratuko da, 20 eguneko epean. | Una vez adoptada la resolución se procederá a su notificación a los solicitantes y a su publicación en el BOG en el plazo de 20 días. |
| **7. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEA** | **ARTÍCULO 7. ABONO DE LAS SUBVENCIONES** |
| Alkateak edo Zinegotzi delegatuak hartutako ebazpena jakinarazi ondorengo 20 egunetan ordainduko da diru-laguntzaren erdia (%50). Jardueraren memoria eta izandako gastuak eta sarrerak egiaztatu ondorengo 30 egunetan ordainduko da beste erdia (%50). Horretarako, elkartearen idazkariak (elkarteen kasuan), edo pertsona eskatzaileak dagokion ziurtagiria (elkartea) edo aitorpen erantzulea (pertsona fisikoa) aurkeztu beharko du. Hiru hileko epea izango da memoria eta gastuen ziurtagiriak aurkezteko, diruz lagundutako jarduera egiten denetik aurrera. | El 50 % de la cantidad a subvencionar se abonara dentro de los 20 días siguientes a la notificación de la resolución adoptada por el Alcalde o Concejal delegado. El 50 % restante de la subvención se abonará dentro de los 30 días siguientes a la presentación de una memoria de la actividad y justificantes de los gastos e ingresos realizados, teniendo un plazo de 3 meses para la presentación de dicha memoria y justificación de los gastos e ingresos desde que se lleva a adelante la actividad subvencionada. El/la secretario/a de la asociación (en el caso de asociaciones) o la persona solicitante deberá presentar el certificado (asociaciones) o la declaración responsable (personas físicas) correspondiente. |
| Jarduera zehatzak eta ohiz kanpoko kasuak badira, eta elkarte, talde eskatzaileak edo pertsonak eskaerarekin batera beharrezko egiaztagiriak aurkezten baditu eta dagokion Batzordeak proposatzen badu Alkateak edo Zinegotzi Delegatuak beste modu batera banatzea erabaki dezake, artikulu honetan adierazitakoa ez bezalako modu batera, alegia. | Cuando se trate de actividades puntuales y, en casos excepcionales, a propuesta debidamente justificada de la asociación o grupo solicitante así como de la comisión correspondiente, el Alcalde o Concejal Delegado, podrá acordar una distribución del abono de las subvenciones distinta de |

| | |
|---|---|
| Diruz lagunduriko ekintzak gauzatzeko epea eskaera egin den urte naturala izango da. | lo mencionada en este artículo.<br><br>El plazo de ejecución de las actividades subvencionadas será el año natural en el que se ha solicitado la subvención. |
| **8. ARTIKULUA. EZ-BETETZEA** | **ARTÍCULO 8. INCUMPLIMIENTO** |
| Araudi honek diru-laguntza emateko aipatutako baldintzaren bat ez-betetzeak diru-laguntza kentzea eragingo du, eta adierazitako epean beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, jasotako diru-laguntza guztia itzuli beharko da. | El incumplimiento de las condiciones determinantes de la concesión de las ayudas a que hace referencia la presente normativa conllevará la retirada de la subvención con devolución de todas las cantidades percibidas en el supuesto de no presentar la documentación requerida en el plazo señalado. |